

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

22 urteko gazte bat eta adingabeko hiru pertsona hil dira haien autoa Tuterako La Mejanako ubidera erori ondoren

Istripuaren lekuko baten abisua jaso da SOS Nafarroa – 112 telefonoan 23:46an

Viernes, 24 de agosto de 2012

22 urteko gazte bat eta adingabeko hiru pertsona (13, 12 eta 10 urtekoak), guztiak gizonezkoak eta Tuterako herritarrak, hil egin dira bart haien ibilgailua La Mejanako ubidera erori ondoren, Erriberako hiriburuan.

Hildakoak NA-7693 BC matrikuladun Citroen Xantia urdina autoa gidatzen zuen 22 urteko MNE eta autoaren

atzeko eserlekuetan zihoazen hiru adingabeak dira. Haietako bi, 13 eta 10 urtekoak, anaiak ziren. Guztiak era auzokoak ziren eta adiskideak.

Istripua Kristoko errepidearen 0,900 kilometro-puntuan gertatu da. Istripuaren lekuko baten abisua jaso da SOS Nafarroa – 112 telefonoan 23:46an


Gorpuak Nafarroako Larrialdietarako Agentziako uretako erreskate-taldeak erreskatatu ditu. Sos Nafarroak ere bidali zituen: ohiko anbulantzia bat eta beste medikalizatu bat, Tuterako suhiltzaileak, psikologo bat familiarrei arreta emateko eta Tuterako udaltzainak.

Hildakoen gorpuak 05:15ak aldera eraman dituzte Iruñeko Medikuntza Legaleko Nafarroako Institutura, eta bertan egingo zaie autopsia. Atestatua Tuterako Instrukzioko 3. Epaitegira igorri da jada. Forzaingoa ezbeharra zerk eragin zuen ikertzen ari da.



Ezbeharra izandako autoa.

Galería de fotos



NLAko suhiltzaileak, istripuan hildako gorpuak erreskatatzeko lanetan.